

Martintxo eta jentilak

Duela aspaldi, ibar eta haranetan, ibai eta erreken ondoan, bizi omen ziren euskaldunak. Lurraren lantzen ez baitzeki-
5 ten, zuhaitzetako hurrak, ezkurak eta gaztainak jaten zituzten.

Mendian aldiz, "jentilak" izenekoko gizon **erraldoi** batzuk bizi ziren. Horiek arras ongi bazekiten lurraren lantzen eta urte guzietan **gari**
10 meta ederrak biltzen zituzten.

Martintxok, **trikuharri** baten gibelean gorderik, gari meta handi horiek ikusi zituen. Eta pentsaketa hasi zen. Nola egin jentilen garitik pixka bat eskuratzeko? Ezen, gauza jakina, jentilek ez zuten beren garitik nehoi emaiten. Orduan nola
15 egin jentilen tronpatzeko?

Halako batean, Martintxok ideia gaitza ukan zuen. Jentilei garia nola ken asmatu zuen! Egun batez, jentilak urrundik segitu zituen : gari haziak harpe zilo
20 batera eramaiten ari ziren.

Harpe zilo hartan, jentilek gari meta handia egina zuten. Gure Martintxo beldurrik gabe hurbildu zitzairen eta
25 erran zien :


– Nik gari meta handi hori jauzian iragan dezaket.



erraldoi : izigarri handi.

gari : ogi.

trikuharri : harrizko mahaia-
ren gisakoa. Lehengo den-
boretako oroit harria.



Jentilak orduan irriz hasi ziren.

– Nik bai egin dezakedala – ihardetsi zion jentil batek – baina zuk? Holako zango laburrekin!

30

Eta berehala jentil erraldoiak jauzi egin zuen gari metaren gaineretik.

Ondotik, Martintxoren aldi, bere bota handiak soinean.

Baina gaineretik pasatu beharrean, gure mutikoa, zapla! gari metaren erdi-erdira erori zen eta han gelditu, garian, belaunetaraino sarturik.

35

Hori ikusi eta jentil erraldoiak irriz hasi ziren eta Martintxo utzi zuten hola-hola bere herrira itzultzera.

Martintxo kantuz jautsi zen menditik ibarrera. Herritar guziak bildu ziren haren inguruan. Martintxok botak kendu zituen. Gariz bete-beteak ziren. Bihiak zaku batean gorde zituzten.

40

Biharamunean, euskaldunak lanean hasi ziren. Lurra landu zuten eta garia erein.

Hilabeteak jin, hilabeteak joan, garia sortu zen, handitu eta **ondu**.

Udan, euskaldunek beren lehen uzta bildu zuten. Irinaren egiten ikasi zuten, irin horretatik ogia, bixkotzak ere bai.

45

Geroztik, euskaldunek gosea zer den ez dakite.

Oi, Martintxo! Zer mutiko abila izan zen!

ondu : zohitu. Biltzeko pres-tatu.



Ipuin herrikoa

① IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Nola bizi ziren lehengo euskaldunak ?
- Nor ziren jentilak ?
- Non bizi ziren ?
- Zer nahi du Martintxok ?
- Zer asmatzen du hortako ?
- Zertako dute garia euskaldunek ?

② HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

- ▶ Erranaldi hauei ongi so egiezu eta zure iritzia emazu. Non dira desberdintasunak ?

Urte guzietan, gari meta ederrak biltzen zituzten jentilek.

Urte guzietan, gari meta ederra biltzen zuten jentilek.

Urte guzietan, gari meta ederrak biltzen zituen jentilak.

- ▶ Lau erranaldiak kopia itzazu. Haietarik hiruk erranahi hurbila dute. Hiru erranaldi horiek azpimarra itzazu.

Hori ikusi zutelarik, jentil erraldoiak irriz hasi ziren.

Hori ikusi aitzin, jentil erraldoiak irriz hasi ziren.

Hori ikusi zutenean, jentil erraldoiak irriz hasi ziren.

Hori ikusi eta, jentil erraldoiak irriz hasi ziren.

- ▶ Hiru erranaldiak kopia hutsuneak betez (iragan aditza erabiliz).

Lehen, gari meta handi hori, nik jauzian ...

Orain, gari meta handi hori, jauzian ...

Handi izanen naizenean, gari meta handi hori jauzian ...

- ▶ Lehen lerroari begiratu eta, denak kopia itzazu.

Martintxo, kantuz, jautsi zen menditik ibarrera.

Martintxo (txixtu) jautsi zen (logela / sukalde).

Martintxo (negar) jautsi zen (harpe / etxe).